



LAZKAOKO
UDALA

**2022KO URTARRILAREN 24KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko urtarrilaren hogeita lauan, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Bere ezin etorria adierazi du Amagoia Naldaiz Mingo zinegotziak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Bilkurari hasiera eman eta alkateak esan du eguneko gai zerrendan ez dagoen gai bat sartzea planteatzen dela presazko izaeraz, landa lur arloko dirulaguntza bat hain zuzen ere. Tokiko Gobernu batzarrak, bertaratutako guztien aldeko botuz, gaia eguneko gai zerrendan sartzea erabaki du.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPEN BIDEZ ONARTUTAKOAREN BERRI EMATEA.-

Ondoren alkatetzaren ebazpen bidez onartutako dirulaguntza baten berri eman da. Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren ganean gelditu da.

III.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2021eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 82 zbk.dun fakturen zerrenda, HOGIETA BOST MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMAR euro ETA BERROGEITA ZAZPI zentimo (25.590,47 €)tako eta zerrenda honetatik kanpo guztira HEMERETZI MILA BERRIHUN ETA HOGIETA HIRU euro ETA HIRUROGEITA HAMABOST ZENTIMO (19.223,75 €) diren fakturak, bere espedienteetan daudenak, onartzea erabaki da.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 21-11-07 zk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea onuradunaren heriotzagatik, 2021eko abenduaren 6an.



- 14-11-04 zk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea onuradunak hala eskatuta, 2021eko abenduaren 31n.

- 21-11-03 zk.dun esped.: zerbitzua murriztea onuradunak hala eskatuta, astean 35 ordutik 28 ordura, 2022ko urtarrilean 15etik aurrera. Erabiltzailearen ekarpena zerbitzu kostuaren %15 da.

- 14-11-09 zk.dun esped.: zerbitzua handitzea onuradunak larunbatean ere zerbitzua behar duelako, astean 15 ordutik 17 ordura, 2022ko urtarrilaren 15etik aurrera. Erabiltzailearen ekarpena zerbitzu kostuaren %2 da.

- 18-11-08 zk.dun esped.: zerbitzua handitzea onuradunaren osasun egoera aldatu delako, astean 4 ordutik 10 ordura, 2022ko urtarrilaren 17tik aurrera. Erabiltzailearen ekarpena zerbitzu kostuaren %35 da.

- 135 zk.dun esped.: zerbitzua handitzea onuradunak zaintza handiagoa behar duelako, astean 2 ordutik 10 ordura, 2022ko urtarrilaren 17tik aurrera. Erabiltzailearen ekarpena zerbitzu kostuaren %2 da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 16-01-005 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

- 20-01-004 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 46,25 € eta alokairu gastuetarako 105 € ematea urtarriletik ekainera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

- 21-01-001 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € eta alokairu gastuetarako 250 € ematea urtarriletik ekainera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

- 21-01-003 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 € eta alokairu gastuetarako 250 € ematea urtarriletik ekainera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

Epe luzean ingesatuta daudenentzako dirulaguntzak.-

- 20-18-01 zk.dun esped.: garraiorako hilean 72,37€ ematea, 2022ko urtarriletik abendura, Arrasateko Aita Menni psikiatrikoan ingesatuta dagoen bere semea bisitatzera joateko.

Gizakia Helburura joateko garraioa.-

- 20-14-01 zk.dun esped.: bidaietarako ematen zaiona jaistea hilean 119,70 €tik 100 €ra, Hernaniria egiten dituen bidaien zenbatekoa jaitsi delako, 2022ko urtarriletik abendura.

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-



Kultura Batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntza hauek onartu ditu:

- Gurutze Gorriari.-

2022rako aurreikusitako dirulaguntzaren erdia, hau da 2.500 €, orain ordaintzea.
Ordainketa 2022ko aurrekontuaren 1 481.03.231.00 2022 partidatik egingo da.

- Kantaka abesbatzari.-

2022rako aurreikusitako dirulaguntzaren %60, hau da 2.400 €, orain ordaintzea.
Ordainketa 2022ko aurrekontuaren 1 481.01.334.00 2022 partidatik egingo da.

- Goierriko Hitza eta Goierri Telebistari.-

Biztanleko 2 € ematearen irizpidea jarraituz, orain bakoitzari 5.830 €ren pareko lehen zatiaren ordainketa egitea.

Ordainketa 2022ko aurrekontuaren ondorengo partida hauetatik egingo da:

- Goierri Telebistari 471.01.491.00 partidatik
- Goierriko Hitzari 471.02.491.00 partidatik

Proposamena egiteko erabili den biztanleen zenbatekoa Lazkaok 2020-01-01era zeuzkan biztanleen zifra ofiziala izan da eta laster 2021-01-01era zeuzkanaren zifra aterako denez, bigarren ordainketa egiterakoan zenbateko horren arabera doituko da urtean eman beharreko guztia.

- Lazkaoko Musika Bandari.-

2022an aurreikusitako dirulaguntzaren %60, hau da 1.800 €, orain ordaintzea.
Ordainketa 2022ko aurrekontuaren 1 481.01.334.00 2022 partidatik egingo da.

- Oin Arin dantza taldeari.-

2022an aurreikusitako dirulaguntzaren %60, hau da 7.200 €, orain ordaintzea.
Ordainketa 2022ko aurrekontuaren 1 481.01.334.00 2022 partidatik egingo da.

- Jundajo Txarangari.-

2022an aurreikusitako dirulaguntzaren %60, hau da 1.800 €, orain ordaintzea.
Ordainketa 2022ko aurrekontuaren 1 481.01.334.00 2022 partidatik egingo da.

VI.- EUSKARA ETA HEZKUNTZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara eta Hezkuntza Batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntza hauek onartu ditu:

- Gerriko Kultur Elkarteari.-

Mintzalaguna proiektuaren barnean 2021eko irailetik abendura bitarteko jarduerarengatik, dirulaguntzaren urteko bigarren zatia, hau da 5.050 € ordaintzea.

Ordainketa 2021eko aurrekontuaren 1 481.02.335.00 2021 partidatik egingo da.

- Euskarako ikasleei.-



2021/2022 ikasturtean euskara ikasten hasi diren ikasleei dirulaguntzaren 2. zatia-
ren ordainketa egitea. Bi ikasle dira eta guztira 264 € ordainduko zaie, bakoitzari bere es-
pedientearen jasotako zenbatekoaren arabera.

Ordainketak 2021eko aurrekontuaren 480.01.335.00 partidatik egingo dira.

- Lazkao Txiki Musika Eskolari.-

2022rako aurreikusitako dirulaguntzaren erdia, hau da 27.500 € orain ordaintzea.

Ordainketa 2022ko aurrekontuaren 481.02.326.00 partidatik egingo da.

VII.- JARDUERA EKONOMIKOKO DIRULAGUNTZAK .-

Jarduera Ekonomikoko batzordeak dirulaguntzak emateko egindako proposamenen
aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak dirulaguntza hauek onartzea erabaki du:

- Lazkaoko merkataritza eta ostalaritzarako jardueren irekiera eta modernizazio diru-
laguntzen barruan aurkeztutako ondorengo eskaerari dirulaguntza ematea:

Merkataria	Zenbatekoa
Idoia Noai Otegi y otra C.B. (360 faktoria)	1.000,00 €

Dirulaguntza hau 2021eko aurrekontuaren 471.03.430.00 partidatik ordainduko
da.

- Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako 2021eko gabonetan burututako erakusleihu
lehiaketaren kanpainaren barruan, parte hartu duten hainbat merkatariri beraien saltokie-
tan jaso eta ekarri dituzten bonuen arabera dirulaguntza hauek ematea:

Merkataria	Zenbatekoa
NEKANE GARMENDIA MUJIKI Y OTRA CB (GARAIZ)	180 €
MIREIA ESTEVEZ RODRIGUEZ (KOBLOI)	55 €
IDOIA MATXINANDIARENA TOLOSA (ILEAPAINDEGIA)	90 €
ANA CRISTINA OLANO CERDA (EDERGINTZA)	75 €
PEDRO PEREIRO ZABALA (FARMAZIA)	30 €
GUZTIRA	430 €

VIII.- IDAZKARI POSTUA BEHIN BEHINEAN BETETZEKO OINARRIAK ONARTU ETA DEI- ALDIA EGITEA.-

Udal honek hutsik dauka idazkari postua, bigarren mailakoa, iaz udalak hirugarren
mailako idazkaritza-kontu hartzailetza izatetik bigarren mailara aldatu zenetik eta beraz
orain postu hori bitan banatu delako eta ordu arte zegoen idazkari-kontu hartzaileak kon-
tu hartzaile postua betetzea eskatu duelako.

Hau honela eta lan poltsetatik norbait aurkitzen egindako saiakerak emaitzarik
eman ez duenez, eta estatu gaikuntza duten funtzionarioentzako lehiaketetatik norbaitek



LAZKAOKO
UDALA

Lazkaoko postua betetzea eskatzen ez duen bitartean, idazkari postua behin-behinean betetzeko deialdia egitea planteatu da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, eta ogasun batzordearen proposamenaren aurrean, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako akordioak hartu ditu:

- 1.- Lazkaoko Udalaren 2. klaseko idazkari lanposturako gaitasuna duen pertsona bitarteko funtzionario izendatzeko oinarriak, bere espedientean daudenak, onartzea.
- 2.- Lazkaoko Udalaren 2. klaseko idazkari lanposturako gaitasuna duen pertsona bitarteko funtzionario izendatzeko oposizio-lehiaketa deitzea.

IX.- LANDA LUR ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa lur arloko zinegotziaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak honako diru laguntza hau onartu du:

- Lazkaoko Baserriarren Tresna Elkarteari.-

2021eko udal aurrekontuan aurreikusitako 4.000 €ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa 2021eko aurrekontuaren 471.01.412.00 partidatik egingo da.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

